


Euskal AEko industria-prezioak % 0,5 jaitsi dira 2024ko irailean, aurreko hilaren aldean

2023ko irailaren aldean, industria-prezioek % 6,5eko jaitsiera izan dute

Euskal AEko industria-prezioak % 0,5 jaitsi dira 2024ko irailean aurreko hilaren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Iraileko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) % 6,5 jaitsi da.

Azterketa zehatzago batek agerian uzten duenez, 2024ko irailean aurreko hilaren aldean beherakadarik handienak izan dituzten sektoreak dira *Kokea lortzeko eta petrolioaren finitzaileak* eta *Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa*, eta lehenengoak % 5,4ko jaitsiera izan du eta bigarrenak % 1,2koa. Aitzitik, prezioetan hiletik hilerako igoerarik handiena izan duten sektoreak dira *Zuraren, paperaren eta arte grafikoen industria* (% 1,3) eta *Kautxu produktuen, plastikoaren eta metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa* (% 0,7).

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Helburu ekonomikoaren arabera ondarearen sailkapenari jarraituz, eta 2024ko abuztuaren aldean, *Energiaren* prezioak % 3,4 jaitsi dira; *Kontsumo-ondasunen* prezioak % 0,3 jaitsi dira, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* prezioak % 0,3 jaitsi direlako, *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* prezioak aldatu ez izanaren ondorioz. *Bitarteko ondasunen* prezioak % 0,1 igo dira, eta *Ekipamenduko ondasunenak* ere ez dira aldatu.

Urte arteko datuetan, 2024ko irailean, 2023ko irailaren aldean, prezio-jaitsierarik handienak honako adar hauek izan dituzte: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 26,5eko jaitsiera) eta *Kokea lortzeko eta petrolioaren fintzeko fabrikak* (% 26,1ekoa). Aitzitik, urte artean igoerarik handiena izan duten prezioak *Erauzketa-industriak* (% 7,6), eta *Garraio-materialaren fabrikazioa* (% 3,6) adarretakoak izan dira.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Iraila 2024

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	123,4	-0,5	-6,5
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	135,1	-0,3	7,6
Manufaktura-industria	128,0	-0,6	-3,4
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	132,7	-0,2	0,7
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	113,9	-0,8	1,1
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	143,9	1,3	-2,6
Kokeak eta petrolioaren fintzen	117,4	-5,4	-26,1
Industria kimikoa	146,8	-0,4	0,9
Botiken fabrikazioa	130,1	0,1	-3,3
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	120,1	0,7	-1,7
Metalurgia eta produktu metalikoak	140,0	-0,2	-0,3
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	121,9	-1,2	0,0
Material eta ekipoen fabrikazioa	120,1	0,0	3,0
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	116,8	0,0	1,0
Garraioko materialen fabrikazioa	117,4	0,4	3,6
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	122,1	-0,4	0,8
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	95,5	-0,2	-26,5
Ura	136,2	0,3	3,0
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	130,5	-0,3	0,7
Kontsumoondasun iraunkorrak	122,1	0,0	3,2
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	131,8	-0,3	0,3
Ekipo-ondasunak	121,4	0,0	1,9
Bitarteko ondasunak	134,9	0,1	-0,4
Energia	102,5	-3,4	-30,2

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2024ko Urriaren 24a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Helburu ekonomikoaren araberako ondasun-talde handien prezioen urte arteko aldakuntza negatiboa izan da *Energian*, % 30,2ko jaitsiera izan baita, eta *Bitarteko ondasunetan*, kasu honetan jaitsiera % 0,4koa izan da. *Kontsumo-ondasunen* prezioak % 0,7 igo dira, *Kontsumo iraunkorreko ondasunenak* % 3,2 igo direlako eta *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunenak* % 0,3. Azkenik, *Ekipamenduko ondasunen* prezioak % 1,9 igo dira urte artean.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman dizkie parte hartu duten establezimendu guztiei egin duten ahaleginagatik. Haiei esker, hilabete honetako indizea laginaren **% 93,10eko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62